




Euskal Itsas Ondareari behakoa

2. GAIA


Itsasoaren arriskuetatik babestea Donibane Lohizuneko badian



ERAKUSKETA ibiltaria

Antolatzailea: Itsas Begia,
Akitaniako Museoarekin eta
Baionako eta Euskal Herriko Artxiboen Gunearekin
elkarlanean





Badiaren izena bete.
Seinalatu elementua aurki eta
legenda osa ezazue.

Donibane Lohizuneko badia 1886. urtean

Hemengo mapan, itsasotik
babesteko obrak seinala
itazue.

Obra horietako zenbait ez da
goiko argazkian ageri. Zeint-
zuk?

Alde horrek lagunduko digu
goiko argazkiaren data gutxi
gorabehera zehazten.



Arrokazko
itsasertza




Itsasertz beheara : hondarrezkoa,
hezea

Digak eraikitzea

- Erakusketan, argazki hau atzeman ezazue.
Izenburua eta data kopia itzazue :

- Goiko mapan, argazkiaren kokalekuan gurutze bat
egin ezazue.
- Langile horiek eginiko lana azal ezazue.

- Zein tresna, zein materiale baliatzen dituzte ?



Itsasoaren oldarren kontrako borrokak mendeetan tematsuki lanean aritzea eskatu du eta euskal kostaldearen paisaia sakonki aldatu du. Halarik ere, arriskua ez da, inolaz ere ezabatu.

Kostan hondoan jo itsasontzi bat ageri duen argazki bat xerka ezazue.
Izenburua eta data kopia itzazue :

Itsasontziari gertaturikoa kontatu.

Erakusketan begiztatzeko fitxaren irudietarako osagarriak :

DONIBANE LOHIZUNEN PLANO. Frantziako portuen atlasa, 1886. Digital bihurtu dokumentua.
Mapa honek digak eraikitze baliatzen azpiegiturak erakusten dizkigu: burdinbideak, eraikinak... Ekipamenduaren Departamendu Zuzendaritza zenaren funtsa – itsas zerbitzua. 4 S 139 Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxiboak.

ZOKOA, 1865 -1875 inguruan

Digen eraikitze lanen hastapena da. Arthako eta Santabarbarako digak ez dira oraino eraikiak. Harri mokorrak egiteko lehen lantegia hondartze portuan kokatua zen.

«Digak eraikitzea» argazkirako:

ZOKOA, ARTHAKO DIGA

2. pontoi omnibusak garabiak ditu ; digatik hurbil ainguratua da eta amarratzen zaion harri landuen garraio pontoiarentzako deskargalekua da. Langileek zaldain baten bidez deskargatzen dute, eskuz.

BASKULADUN PONTOI HANDIAREN PLANO. [1909]. Digital bihurtu dokumentua.

Pontoi hori, Santabarbara pontoi ere deitua, digen oinarriak egiteko mokor naturalak urazpian pausatzeko baliatzen dute. Sakonera gutxikoa baita, itsasbehera baino doi batt gorago deskargatzeko balio du. Ekipamenduaren Departamendu Zuzendaritza zenaren funtsa – itsas zerbitzua. 4 S 140 Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxiboak.

Mokorrak bagonetan eramaten dituzte eta kontrapisu dorrearen bidez jausten dituzte. Gero, pontoiak mokorren xerka etortzen dira eta digaraino eramaten dituzte. (Ikus ere digitalduriko honako dokumentu hau : **Kontrapisu dorrea**)

Itsasontzien hondartzea dela eta:

DONIBANE LOHIZUNEN BADIEN PLANO URDINA, BUIEN KOKALEKUEKIN. [1910]. Digital bihurtu dokumentua.

Plano horrek Baionara sartu ahal izan arte babes bila datozen pasaiako itsasontzientzako dau den ainguratokiak zehazten ditu. Ekipamenduaren Departamendu Zuzendaritza zenaren funtsa – itsas zerbitzua. 4 S 140 Pirinio Atlantikoetako Departamendu Artxiboak.